

ENPRESENTZAKO PRESTAKUNTZA

IRAUNKORRA ETA ZERBITZUAK **EUSKARAZ**





Zergaitik euskaraz?

Prestakuntza planak enpresentzako tresna estrategiko garrantzitsuak dira, erakunde beraren kualifikazio maila eta pertsonen garapena gauzatzeko laguntzea baitute helburu. Plan hauek erakundearen helburuak lortzeko laguntzeko xedea izaten dute, lanpostuetan ematen diren gaitasunen bilakaeretan pertsonen egokitzapena ahalbidetuz eta beraien promozio profesionala erraztuz.

Prestakuntza plana enpresen helburuak lortzeko tresna dela badiogu, helburuen artean euskararen erabilera sustatu eta normalizatzea helburu duten enpresentzat, plan hauek euskaraz ere egiteak garrantzia dauka. Helburua izateaz gain, enpresa eta langileentzat eskubidea ere bada beraien prestakuntza euskaraz jaso ahal izatea.

IMHk pertsona eta enpresekin elkarlanean urratsak eman nahi ditu, enpresek eta langileek haien prestakuntza euskaraz egin ahal izateko, eta merkatua eta eskaintzaren arteko hurbilketa ahalbidetzeko. Finean, euskara, gaztelania eta ingelesa bezala, lan hizkuntza bilakatzeko.

Katalogoan eta eskaripean

Langileentzako Prestakuntza-Iraunkorreko katalogoan urtero ikastaroak euskaraz programatzen ditugu; urtarirlean eta irailean kaleratzen dira programazioak eta interesa duten pertsonak zein enpresek izena eman dezakete. 2010eko programazioan (www.imh.es webean eskuragarri) Fabrikazio eta Mantenimendu arloetan aurkitu ditzakezu "euskaraz" adierazitako oharrarekin.

Honez gain, enpresentzat eskaripeko aukera ere dago, enpresaren behar, helburu eta strategiara egokitzen den hura da, eta enpresan bertan sortzen diren arazoak konpontzeko modurik eraginkorrena. Kasu honetan klaseak IMHren instalazioetan edota enpresan bertan emateko aukera dago eta kasu gehienetan euskaraz ere eman daitezke, bai teknikoak eta baita giza baliabideen arloan (INCRESS). Ikastaro teknikoak 3. orrialdean azalduko ditugu zehaztuta.

Enpresa batzuk behar amankomunak izango balituzkete, hauen langileak elkartu eta euskaraz antola ditzakegu ikastaroak eskaripean ere.

Pertsonen kudeaketa

IMHren INCRESS taldeak pertsonen gaitasunen inguruan eskaintzen dituen zerbitzuak ere euskaraz egin daitezke, berrikuntza-agendak, diagnostikoak,.. 4. orrialdean daude zehaztuta.

Ibilbidea

IMHk hamar urte daramatza Heziketa Zikloak euskaraz ere eskaintzen eta Txandakako Ingeniaritzan 2006tik nahi duten ikasleek ikasgaien ehuneko jakin bat euskaraz ikas dezakete. IMHn ziklo zein ingeniaritza euskaraz ikasi dutenentzat, iraunkorreko ikastaroak euskaraz egin ahal izatea bide naturala da.

Erakundeen konpromisoa

IMHk Goazen euskararen erabilera sustatzeko plana Ahize-AEKrekin elkarlanean abiatu zuen, eta hasieratik Elgoibarko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jauriaritzak diruz laguntzen dute urtero. Goazeni esker, hainbat baliabide prestatu ditugu IMHren eskaintza euskaraz egin ahal izateko.

Katalogo honetan deskribatzen diren ikastaro eta zerbitzuei buruzko informazioari buruz gehiago jakin nahi baduzu, jar zaitez harremanetan:

IMH, Makina Erremintaren Institutua
Arduraduna: Zigor Esnaola
Idazkaria: Eider Iriondo
imhformazioa@imh.es
Telefonoa 943 74 41 32
www.imh.es



IKASTARO TEKNIKOAK

IKASTARO TEKNIKOAK

Fabrikazio Arloa

CNC Plano Inklinatuak (Heidenhain) 19 Zikloa
 CNC Fresatzeko makina 1.maila (Fagor): Programazioa
 CNC Fresatzeko makina 2.maila (Fagor): Prestaketa
 CNC Tornua 1. maila (Fagor): Programazioa
 CNC Tornua 2. maila (Fagor): Prestaketa
 CNC Tornua 3. maila (Fagor): Mekanizazioa
 CNC Tornua 1. maila (Fanuc): Programazioa
 CNC Hari bidezko elektrohidraduraren prestaketa eta programazioa
 CNC Sarpen bidezko elektrohidraduraren prestaketa eta programazioa

Muntai Arloa

Automatismo Elektro Kableatuak
 Automatismo Elektrohidraulikoak (Elektrohidraulika eta hidraulika proportzionala)
 Automatismo Hidraulikoak
 Automatismo Neumatiko eta Elektroneumatikoak
 Automatismo Elektroneumatikoak
 Automatismo Programagarriak. Siemens I
 Automatismo Programagarriak. Omron I
 Automatismo Programagarriak. Allen Bradley I
 Automata Programagarriak Orokorra. Siemens II
 Automata Programagarriak Orokorra. Omron II
 Automata Programagarriak. Allen Bradley II
 Erregulazio automatikodun elementuak
 CNC instalazioa eta mantenimendua. Fanuc
 Muntai mekanikoa
 Errodamenduen aplikazio eta muntaia
 ABB roboten programazioa (1.maila)
 ABB roboten programazioa (2.maila)
 PLCen programazioa (Siemens eta Omron)
 PLCezko sareak (Profibus DP Siemens eta Omron)
 Oinarriko Wincc malgua
 Sentsoreak. Motak eta aplikazioak
 Motor elektrikoak
 Matxura elektrikoaren lokalizazioa eta mantentzea

Diseinu Arloa

Planoen interpretazioa
 Makinen elementuen kalkulua
 Materialen erresistentzia
 Autocad
 CAD 3D Modelatua eta planoak (Solid Edge I)
 CAD 3D Multzoak (Solid Edge II)

Metrologia Arloa

Oinarriko Metrologia
 Koordinatuen bidez neurtzeko makina, 1. maila: programazio geometrikoa (PC-Dmis Programa)
 Koordinatuen bidez neurtzeko makina, 2. maila: CADen aurkatu neurketa (PC-Dmis Programa)
 Perdoi geometriko eta gainazalekoak
 Kalibrazio plana
 MSA- VDA
 Egiazatze dimentsionala
 Neurketa beso eramangarria
 Produktuaren kontrola

Informatika Arloa

Ms Word
 Ms Word aurreratua
 Writer Open Office
 Writer Aurreratua. Open Office.
 Ms Excel
 Ms Excel Aurreratua
 Calc. Open Office
 Calc. Aurreratua. Open Office
 Ms Access
 Ms Access Aurreratua
 Internet / Intranet
 Web orrien diseinu eta sorkuntza
 Microsoft Project
 Impress
 Power point

Eskaripeko Prestakuntza iraunkorreko diru-laguntzak

Enpresek zenbait laguntza eta diru-laguntza jaso ditzakete prestakuntza ekintzak egiteagatik. IMHK 15 urte baino gehiago daramatza enpresei zenbait erakundek enpresei eskaintzen dizkien diru-laguntzak kudeatzen, esaterako, HOBETUZ, FTFE, EUSKO JAURLARITZA.

Gaur egun, bi bide nagusi daude enpresek beren langileei ematen dieten prestakuntza finantzatzeko:

1. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak prestakuntza diruz laguntzeko egiten dituen deialdiak. HOBETUZek kudeatzen ditu deialdi horiek.
2. Gizarte-Segurantzarako Estatu Hoberi Sistema. Fundación Tripartita para la Formación en el Empleo (FTFE) fundazioak kudeatzen du.

TREBETASUNAK LANTZEKO IKASTAROAK



PERTSONEN KUDEAKETARI BURUZKO ZERBITZUAK

Trebetasun pertsonalak

Coaching prozesua
Negoziazaketa teknikak
Saltzeko teknikak
Enpresa komunikazioa
Proiektuen kudeaketa
Bileren zuzendaritza eta denboraren kudeaketa
Aurkezpen eraginkorrak. Jendaurrean nola hitz egin
Estresa eta autokontrola

Adimen emozionala enpresa munduan

Taldeetan aplikatzeko trebetasunak

Erendimendu handiko taldeak
Lidergoa eta motibazioa
Arazoak konpontzea eta erabakiak hartzea
Sormena enpresan

Laguntza emateko trebetasunak

Prestatzaileen prestakuntza
Bezeroarentzako arreta, lehiarako abantaila gisa
Telefonozko arreta
Protokoloa eta komunikazioa enpresan

GGBBen kudeaketan aplikatzeko trebetasunak

Aplikazioaren ebaluazioa: ebaluazio elkarrizketa
Gaitasunetan oinarritutako kudeaketa
Hautaketa elkarrizketa
Prestakuntza plana nola egin
Jarrerak nola garatu eta finkatu

Erakundeen dinamizazioa

Ikasten duten taldeak
Parte-hartze eta motibatzeko diagnos tikoak eta hauek abiatzeko planak
Proiektu partekatua. Ikuspegi komunak eraiki eta jabetza-izpirituak sortu

Berrikuntza agenda

Berrikuntza agenda

Gaitasunetan oinarritutako kudeaketa

Profilen definizioa
Lan-jardueraren ebaluazioa

Analisi sektorialak
Gaitasunetan oinarritutako ordainsaria

Gaitasun Softwarea

Analisi sektorialak
Prestakuntza planen kudeaketa
Lan-jardueraren kudeaketa
Ikerketa inkestak (giroa, gogobetetzea, e.a.)

Aukeraketa

Prestakuntza-diagnostikoak
Prestakuntza planak
Gaitasun emozionalak (Adimen Emozionalaren Patzueragoko partaideak)
Coaching prozesuak (zuzendaritza mailan eta zuzeneko eta zeharkako eskulanean)
Trebetasunak pertsonen kudeaketan / Management Skills

PERTSONEN KUDEAKETA:

Ikastaro korporatiboak

Enpresan berriazko beharrei erantzunez, INCESSek korporazio izaeradun ikastaroak lantzen ditu, formazioa garatu eta/edo jasoko duten sailak ematen dituzten informazioa erabiliz, ikastaroaren atarramendu handiena lortu ahal izateko.

INCESS prestakuntza eta management zerbitzuak ematen duen IMHko lan-taldea da. Erakundeen eta hauek osatzen dituzten pertsonen eguneroko lana hobetzeko, INCESSen helburua da bezeroari balio erantsia ematea:

- Pertsonen gaitasunak garatu eta parte-hartzen bultzatu: erakundeen emaitzak hobetzen lagunduko du.
- Kontzeptuak, metodologia eta tresna berritzaileak eskaintzen ditugu, giza baliabideak alor guztietan kudeatzeko.

Norekin egiten du lan INCESSek:

- Zuzendariak. Enpresako arlo erabakigarrienak identifikatzen erakusten diegu.
- Giza Baliabideetako arduradun eta teknikariak. Dagokien funtzioarekin lotutako prozesuak kudeatzen laguntzen diegu: langileak bildu, prestakuntza eta ordainsariak kudeatu..
- Erdi-mailako kargudunak. Pertsonen eta prozesuen dinamizatzaile izaten irakasten diegu.
- Langileei, oro har: profesionalki garatzen laguntzen diegu.

INCESSen lan-taldeak enpresa eta hezkuntza esparruetan egin du lan azken urteetan, beraz enpresa ikuspegia eta baita ikuspegi akademikoa ongi ezagutzen ditu.